

IDATZI eta ESANAK

Urrats minimoen artean aurreten hain hitzegina izan den euskal egunkariaren beharra dator edonoren burura. Euskaldunok euskaraz informazioa lortzeko aukera izan dezagun derrigorrezkoa dirudi.

Argia, Urtekaria 1984

Betetzeko dagoen ametsa, garbi dago prentsa aldetik helburua egunkaria dela, hori izango da hurrengo urratsa.

Argia, 1987

Guk, Gobernuak eskatutako CIESen datuen arauera, esan behar dugu Gobernuak badakiela egunkari horri aurre egiteko baldintza hoberenak ARGIA daukela, eta esan behar da ARGIA, egunkariaren proiektutik kanpo utzita, Gobernuak berau baztertzeko daukan borondatea frogatuko lukeela.

Argia, 1989-VII-17

Komunikabideetan eta gainerantzeko sailetan, arazo nagusia da guk pauso bat ematen dugun bitartean erdarek berrogeita hamar ematen dituztela.

Argia, 1989 Urtekaria

Proiektuaren bideragarritasuna garbi ikusten da. Instituzioek bere esku izango dute proiektua baldintza hobeagotan ala kaskarragotan sortzea. Egunkaria sortzera doa. Instituzioen esku geratuko da baldintza horien erantzunkizuna.

Egin, 1990-III-11

Hemen bizi dugun giro eta egoeran, gaur egun instituzionala litzatekeen proiektu bat hipoteka politiko inportante batekin sortuko litzateke, eta hori gure ustez negatiboa litzateke horrelako proiektu batek behar duen zabalasunarentzat.

Loiolako Herri Irratia, 1990-IV-14

Urte dexenteko apostua da egunkariarena, hau urrats bat besterik ez da, eta udazkenean gai izango gara beste pausu garrantzitsua emateko, hau da, egunkaria egunero kalean jartzeko. Denon artean akatsak zuzenduz, eta indarrak batuz, egunkari on bat egitea lortu behar dugu. Ez da esfortzurik gabe egin beharreko pausu bat; ahalegina deneri eskatzen diegu, bai apostu hori aurrera daramagunoi, baina baita eskuetan paper hau duenari ere: ez dezala lehenengo zailtasunean papera baztertu, baizik eta ohitura berri horri ekin diezaiola.

Egunkaria 0 zenbakia, 1991-VII-15



'Argia-ko' taldea osatua zuen 80. hamarkadaren hasierarako. Makurtuta ageri da Ostaizka lagunmina.



Ilusioa eta sakrifizioa

«Etorkizunik gabeko proiektutan» murgildu ohi omen zen Joxemi. Euskal prentsa idatzia 80ko hamarkadan zegoen zulo beltzetik ateratzeko gizakirik ez omen zegoen. Joxemik euskal prentsan sinesten zuen, 'Zeruko Argia' astekarian sinesten zuen, eta kontrakoa ziotenei irakasgai ederra eman zien. Ilusioz eta sakrifizioz. Ilusio eta sakrifizio handiz.


XABIER LEKUONA

Gaztetan arkitektura zuen buruan Joxemik eta Bartzelonara abiatu zen ikasketak egitera. Baina ordurako euskal prentsa-erakunde harra piztua zuen. Frantziakotarren 'Zeruko Argia' astekarian Andu Lertxundi, Ramon Saizarbitoria eta Xabier Lete bezalako idazleek 'Gaztea naiz' sailean idazten zuten eta Joxemi, hamasei urte inguru zituela, Antton Santamaria eta Rafa Egigurenekin batera sail bereko 'Gazteago naiz' atalean lanak argitaratzen hasi zen. Beranduago hauekin batera ere, 'Makina bat' izeneko antzerki lantxoa ere idatzi zuen.

Hala ere, Bartzelonatik Donostiara etorri eta gero, 1979an 29 urterekin euskal prentsan murgildu eta berehala konturatu zen gustuko zituen pintura eta gainerako zaletasunak sakrifika beharko zituela goitik behera zetorren 'Zeruko Argia-k' aurrera egiterik nahi bazuen behintzat.

Diseinu lanetan eta marrazkiak egiten hasi zen beraz desgertzeaz zegoen 'Zeruko Argia-n'. Lurdes Auzmendi eta Felix Ibargutxi erredaktoreek astekaria utzi zuten, geroxeago Elixabet Garmendiak eta Pilar Iparragirrek... eta kaputxino fraileek zorrak ezin kitatu. Etorkizunik gabeko proiektua.

EGOERARI BUELTA EMAN BEHAR Ez zion inork hondoratzen ari zen untxiari heldu nahi. Hego Euskal Herrian prentsa elebidunaren sasoia zen, hantxe baitziren 'Ere' eta 'Garaia'. Bestalde, 'Egin' eta 'Deia' egunkariak jaio zirela hiru urte



Joxemi ilustrazioak egiten hasi zen 'Argia-n' eta hau 1982koa ekainean argitaratu zen. Astekaria indartzeko beste zeregin batzuetan teknikoagotan murgildu bazen ere, ohizkoa zen edozein une eta paperean marrazkitxoak egiten ikustea.

Esna gaude

INAKI URÍA

Loak hartu eta herioak eraman digu Joxemi. Lasai. Azken hatsa arte eutsi dio biziari. Baina agur esan digu loak hartu aurretik. Keinu ttipi bat eskuarekin. 'Esnatuko al naiz bihar?'.

Esku eskuina buruan eta ezkerre bihotzean. Haurtxoa kulunkan bezala geratu zaigu.

Eskua, burua, bihotza. Gogoeta, irudimena eta sormena. Eta bururatutakoa gauzatzeko eskua eta adorea. Marrazki bidez edo hitzez, goxo eta irmo, handi bihurtzen zuen Joxemik txikia zena. Itotzeaz zegoen 'Zeruko Argia' eskutan eta Euskal Prentsa buruan. 'Argiako' lagunarte ttipi —guretzat handi eta eder— hartatik euskaldunoi EGUNKARIA eskaintzeko bide zabala argitu zigun.

Urteak aurrera, hazten ikusi dugu Joxemi. Gizatasunean handitzen. EGUNKARIA egunkari

huts ez den gisan, euskaldunon eta Euskal Herriaren arazoetan oso-osorik osorik murgiltzen zekien, urak handiak izan arren. Liskar politiko guztien artean euskaldun eta euskaltzaleok bat egiteko konpromezuari heldu zion, gaurko mundu zail honetan euskaldunon herria osatzeko asmotan.

EGUNKARIA bera dugu proiektu horren frogarik ederrena. Maddi eta Jon bere seme-alabekin batera sortu eta hazi duena bizimina eta minbiziaren arteko borroka luzean.

Aitatxo galdu dute Maddik eta Jonek. Joxemi, Ostaizkak eta lagunok. Eta gizon handia euskaldunok. Samurtasunez maitasun aitopena utzi digu guztioi bere azken hitzetan eta dena emanda bizi izanaren lekukotasuna bere bizitzan.

Adio, Joxemi. Esna gaude!

eskas... Bakarrik gelditu ziren Joxe Mari Ostolaza eta Joxemi. Jende prestuaren beharra zegoela eta, Josu Landa idazle gaztea «konbentzitu» eta hirukoteak kendu zion 'Argia-ri' 'Zeruko'.

Panorama beltza. Harpidetzak erdira murriztuta. Erredakzio talderik gabe. Euskal prentsaren erronkari ez zion beldurrik eta sakrifiziozko garaiak heldu ziren. Erronka kulturala eta ekonomikoa: lan eta lan, eta sosik kobratu ez. Lan eta lan, eta gurasoek eta Juanjo Landa eta Pello Iturain bezalako lagunek emandakoaz bizi behar. Diseinuaz gain, L. Bastida eta Xefe Agirre goitizenez sinatutako erreportaiak egin beharra. Igandeetan 'Egin' egunkarian muntaia lanak egin behar irabazitakoa 'Argia-n' sartzeko. Astean bi gaupasa egin behar astekaria Euskal Herriko etxeetara iristeko. Euskal prentsak merezi zuen.

ERRONKAREN BILA BETI Ilusiorik galdu gabe, «proiektuak etorkizunik bazuenez», eta zuela erakutsi behar zuenez, erredakzio talde sendo eta gaztea sortzea lortu zen. Joxemik ilustrazioko zereginak alde batera utzi eta ardura teknikoa bere gain hartuz informatika munduan sartu zen astekaria modernizatuz. 'Argia-k', euskal prentsak, erronka irabazita zuen.

Baina ez zen aski. Asterokoaz gain, euskaldunoi egunero euskaraz irakurtzeko aukera eskaini behar zitzaigun. Amesgaizto zitekeen euskal prentsa amets zoragarria zen Joxemirentzat. Beste erronka latza gaingitu beharra. 1985 da, 'Argia' astekarian egunkariaren harra zabaldu du Joxemik.

Taldeak bere gain hartu du **EUSKALDUNON EGUNKARIA**ko erronka eta Joxemik jo litezkeen ate guztiak jo zituen, behin eta berriro. Eszeptikoak konbentzitu zituen, diru iturriak nola lortu asmatu zuen, bideratu ezinezko guztia bideratu zuen. «Etorkizunik ez duen proiektua» errealtate bihurtu zuen. Ilusioz eta sakrifizioz, ilusio eta sakrifizio handiz.